

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

ARIKETA TEORIKO PRAKTIKOA

1.eta 2. mailak

- Interpretazio zehatza lortzeko pultsoa zuzen barneratzea.
- Formula erritmiko desberdinak dituzten obra edo ariketetan erritmoa zehaztasunez egitea; erritmoak bai erregularrak bai irregularrak izan daitezke.
- “Tempo”a zuzen egitea, adierazten diren ekibalentziak kontuta edukita.
- Eskeintzen den abestia zehaztasunez afinatzea eta bertan azaltzen diren espresioak egitea.
- Landutako edukien arabera, partitura batean elementu hauek ikusi beharko dira: alderdi erritmikoak, melodikoak, modulazioak, kadentzialak, formalak, tinbrikoak...
- Entzundako musika zatia zuzen idaztea (diktaketa)
- Partitura ondo jarraitzeko, interpretatzeko eta analisisa egiteko behar den irakurketa arina.

3. mailarako

- Interpretazio zehatza lortzeko pultsoa zuzen barneratzea.
- Formula erritmiko desberdinak dituzten obra edo ariketetan erritmoa zehaztasunez egitea; erritmoak bai erregularrak bai irregularrak izan daitezke.
- “Tempo”a zuzen egitea, adierazten diren ekibalentziak kontuta edukita.
- Eskeintzen den abestia zehaztasunez afinatzea eta bertan azaltzen diren espresioak egitea.
- Landutako edukien arabera, partitura batean elementu hauek ikusi eta adierazi beharko dira: alderdi erritmikoak, melodikoak, modulazioak, kadentzialak, formalak, tinbrikoak...
- Entzundako musika zatia zuzen idaztea (diktaketa)
- Partitura ondo jarraitzeko, interpretatzeko eta analisisa egiteko behar den irakurketa arina.
- Alderdi polifonikoak idazteko gaitasuna. Hauek akorde, egitura harmoniko edo bi ahotsetako diktaketa moduan azal daitezke. Era berean, entzumena eta arrazonamendua erlazionatu behar dira.

***Ikasketa Profesionaleko Sarbide-Probak
Ebaluazio-irizpideak
Ariketa teoriko praktikoa***

4., 5. eta 6. mailerako

Ahozko frogetako ariketak (partitura bat abestu behar da pianoaz lagunduko zaiolarik eta ariketa erritmiko bat egitea):

- Interpretazio zehatza lortzeko pultsoa zuzen barneratzea.
- Formula erritmiko desberdinak dituzten obra edo ariketetan erritmoa zehaztasunez egitea; erritmoak bai erregularrak bai irregularrak izan daitezke.
- “Tempo”a zuzen egitea, adierazten diren ekibalentziak kontuta edukita.
- Eskeintzen den abestia zehaztasunez afinatzea eta bertan azaltzen diren espresioak egitea.
- Landutako edukien arabera, partitura batean elementu hauek ikusi beharko dira: alderdi erritmikoak, melodikoak, modulazioak, kadentzialak, formalak, tinbrikoak...
- Entzundako musika zatia zuzen idaztea (diktaketa)
- Partitura ondo jarraitzeko, interpretatzeko eta analisisa egiteko behar den irakurketa arina.

FROGA IDATZIAK

4. MAILARAKO

Ariketak:

1. **Baxu-soprano ariketa bat lau ahotsetara egitea** (ikasleak akordeak eta gradoak adierazi behar ditu).
2. **Mailako obra ala pasarte bat analizatzea:** froga honen bitartez, ikasleak, obraren eskema formala (sekzioak, frasea, fraseerdia, motiboak) eta egitura harmonikoa adierazi beharko du.

Ebaluazio irizpideak:

1. **Harmonizazio frogaren bitartez:** ikasleak, harmoniaren arauak, akordeen arteko loturaren funtzionamendua, maila honetako akorde guztien erabilera eta prozesu harmonikoak sortzeko duen gaitasuna egiaztatuko da eta Ikuspuntu morfologikoa eta sintaktikoa edukitzeaz gain, egokitasuna, expresibidadea, lan egiteko interesa eta harmonizazioaren aberastasuna ere kontuan izango da.
2. **Analisi frogaren bitartez:** ikasleak, obra baten egitura ondo ikusteko eta obraren akordeak sailkatzeko duen gaitasuna egiaztatuko da. Era berean, obraren zati guztiak erlazionatzeko duen gaitasuna kontuan izango da.

MUSIKA MODERNOA

Ariketak eta ebaluazio-irizpideak:

1. **Tema baten analisisa:** Ikasleak, jazz estiloko tema baten egitura formala eta akordeen sailkapena ikusteko gaitasuna egiaztatuko da, temaren akorde bakoitzari dagokion eskala eta posible diren tensioak adieraziz.
2. **Doinu baten harmonizazioa:** Harmonizazio frogaren bitartez, akordeak ondo erabiltzen dituela eta jazz estiloaren harmonia ezagutzen duela egiaztatuko da, akorde bakoitzaren eskala eta tensioak erabiltzeko gaitasuna ere erakutsiz.

5. MAILARAKO

Ariketak:

- 1. Tonu-aldaketa dituen baxu-soprano ariketa baten harmonizazioa** (ikasleak, akordeak eta gradoak adierazi beharko ditu).
- 2. Konposizio modulante baten analisia** (ikasleak, egitura formala, harmonikoa eta motibikoa adierazi beharko du).

Ebaluazio irizpideak:

- 1. Harmonizazio frogaren bitartez:** ikasleak, harmoniaren arauak, akordeen arteko loturaren funtzionamendua, maila honetako akorde guztien erabilera eta prozesu harmoniko modulanteak sortzeko duen gaitasuna egiaztatuko da eta ikuspuntu morfologikoa eta sintaktikoa edukitzeaz gain, egokitasuna, expresibidatea, lan egiteko interesa eta harmonizazioaren aberastasuna ere kontuan izango da.
- 2. Análisi frogaren bitartez,** ikasleak, konposizio baten informazioa hartzeko gaitasuna egiaztatuko da, ondoko puntu hauek baloratuz: eskema formala, garapena eta transformazio motibikoa, konposizioaren timbre prinzipala; doinuaren ezaugarriak (imitazioa, entonazioaren azentuak, entonazio eta erritmo azentuen erlazioa), harmoniaren ezaugarri prinzipalak (gradoak, jarraipen tonala, tono prinzipala, pasako tonok, akordeak, pasako akordeak, e.a., harmoniaren finkotasuna ala gabezia, sakontasuna, textura, e.a.) barruko denbora ala formala (unitate expresivo motzak, erdikoak eta luzeak, mugatzen dituzten pausak), erritmoaren ezaugarri prinzipalak (errepikakor, ulerkor, konpas gabekoa, e.a.) ahotsen sonoritate ala bolumen mailak eta matizak; konposizioaren balorearen deskripzioa ala musikaren inguruan eratzen dena: ahotseen sailkapena (organikoak, aldakorrak, orniturazko notak, ahotseen arteko konbinazioak ahotseen osagarritasuna).



***Ikasketa Profesionaleko Sarbide-Probak
Ebaluazio-irizpideak
Ariketa teoriko praktikoa***

MUSIKA MODERNOA

Ariketak eta ebaluazio-irizpideak:

- 1. Tema modulagarri baten analisisa:** ikasleak, jazz tema bat ondo egitaratzeko, garapen tematikoa, temaren ezaugarri konpositiboak adierazteko eta temaren akorde guztiak eta bertan sortzen diren modulazioak sailkatzeko gaitasuna egiaztatuko da. Era berean, akorde bakoitzaren eskala eta tensio posibleak adieraztea ere egiaztatuko da.
- 2. Doinu baten harmonizazioa: harmonizazio frogaren bitartez:** ikasleak, hainbat musika estilotan akordeak ondo erabiltzeko eta tema modulagarrietan dauden modulazioak adierazteko gaitasuna egiaztatuko da.

6. MAILARAKO

MUSIKA HISTORIA

Ariketak:

- 1. Entzutearen bidez, X-XVI. mendeen musika-adierazpenak ezagutzea.**
- 2. Musika buruzko edo musika-eruditun idatziei iruzkinak egitea.** Ikuspegi historiko eta estetikoak kontuan hartuko dira.

Ebaluazio irizpideak:

Ikasleak musika-lan bat aro historiakoan finkatzeko duen gaitasuna egiaztatuko da, genero, egitura eta ezaugarri estetiko nagusiak azalduz; halaber, musika historiako testu baten edukiak ulertarazteko funtzezko termino eta kontzeptuak azaltzeko duen gaitasuna ere baloratuko da.

HARMONIZAZIO ARIKETA

Ariketak:

- 1. J. S. Bach-en estiloko koral bat harmonizatzea** (ikasleak, akordeak eta gradoak adierazi behar ditu).
- 2. Fuga edo sonata baten analisisa** (Ikasleak, konposizioaren gradoak eta ibilbide tonala adieraziko du).

Ebaluazio irizpideak:

- 1. J. S. Bach-en koralaren harmonizazioaren bidez:** ikasleak, Bach-en estiloan akordeak, harmoniaren arauak eta akordeen arteko loturak ondo erabiltzeko eta prozesu harmoniko eta tonalak erabiltzeko duen gaitasuna egiaztatuko da, ikuspuntu morfologiko eta sintaktikoa, egokitasuna, espresibitatea eta harmonizazio interesa eta aberastasuna ere kontuan izanez.



***Ikasketa Profesionaleko Sarbide-Probak
Ebaluazio-irizpideak
Ariketa teoriko praktikoa***

2. **Fuga edo sonata baten analisiaren bitartez:** ikasleak, bi forma musikal hauetako baten informazioa biltzeko duen gaitasuna egiaztatuko da, ondoko puntu hauek adieraziz: analisi morfosintaktikoa; analisi harmonikoa: gradoak, ibilbide tonala, tonuak, modulazioak, e.a., imitazioak, ahotsen arteko erlazioak, ehun musikala ala textura, e.a., erritmoaren ezaugarri prinzipalen analisia, e.a.

KONPOSIZIO OINARRIAK: MUSIKA MODERNOA

Ariketa: Tribunalak proposatuko duen tema baten konponketa, jazz talde baterako.

Ebaluazio irizpideak: Ariketa honen bitartez, ikasleak, analizatzeko, berharmonizatze eta musika modernoa estiloan instrumentuentzako idazteko gaitasuna egiaztatuko da. Era berean, konponketaren interesa, musikalidadea, konponketaren originaltasuna eta ikaslearen ekarpenak ere kontuan izango dira.